

DONOSTIAKO PUNTU KRITIKOEN MAPAREN INGURUKO **KONTROL MOZIOA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16ko Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean eztabaidutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014/2015eko ikasturtean, Donostiako hiritarrekin hiriko puntu kiritikoen mapa kontrastatzeko prozesua burutu zen.

Lehen fasean, Udal teknikariek osatutako maparen lehen zirriborroa bizilagun, emakume elkarte zein eragile feministei aurkezteaz gain, puntu kritikoak identifikatzeko irizpide eta oinarriak aurkeztuz, jasotako ekarpenen ustiaketa burutu zen. Bigarren fasea, mapa kritikoaren eta honen edukien inguruko eztabaida eta kontrastean zehaztu zen. Azkenik, hirugarren fasean prozesuaren eta edukien itzulera eta gizarteratzeari buruzko ekarpenak determinatzeaz gain, lehentasunak finkatu eta konpromisoak hartu ziren.

Prozesuaren amaieran, mapa dinamiko baten aurrean gaudela kontuan hartuz, 2015eko maiatzean, guztira 41 puntuk osatu dutela mapa zehaztu zitekeen. Zentzu horretan, bost esku hartze mota proposatu ziren: hirigintzaren ikuspegitik, sentsibilizazioa, espazio publikoaren okupazioa eta jabetzea, araudietan egin beharreko aldaketak eta zerbitzuetan.

Zentzu horretan, Udal Gobernuak maiatzean zenbait esku hartzeren konpromisoa hartu zuen: mapako zazpi puntuetan ispiluak jartzea, 23 puntuetako

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

begetazioa zaintzea, eraikuntzako ordenantza osagarria lantzeko lehen pausoak ematen hasia, sentsibilizazio kanpainak auzo guztietan zabaltzea, mapatik kanpo geratutako puntuak errebisatzea, lan talde teknikoaren jarraipena eta 2015. urteko udazkenean herritarrekin itzulketa eta beharrezkoak diren balorazio saioak egitea.

Modu berean, prozesuaren balorazioan jasota dagoen moduan, azaldutako zenbait puntu errebisatzeko zai geratu zirela eta prozesuan parte hartu duten herritarrek informatu behar direla azpimarratu behar da.

Egoera honen aurrean eta azaroan burutu ditugun batzordeetan zein agerraldietan jasotako erantzunekin kezkatuak, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio aurrekontu eztabaida eman aurretik, Donostiako Mapa Kritikoan eman diren esku hartzeen inguruko txostena eta gobernuak aurkezten dituen aurrekontuetan esku hartze hauek bereiztea, eta prozesuan parte hartu dutenei zein talde politikoei aurkeztea.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia